

Facebook orria estreinatu du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak

2014/09/24

Gaurtik aurrera, Facebook orria ere izango du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Orain arte, batez ere, Twitter profila baliatu du fakultateak informazioa partekatzeko eta jarraitzaileekin harremanetan egoteko. Aste honetatik aurrera, ordea, Facebook sare sozialean ere toki propioa izango du Mondragon Unibertsitateko fakultateak.

Orri berria baliatuko da fakultatean gertatutakoaren berri emateko, ikasle zein irakasleen lanak ezagutzera emateko, interesgarria izan daitezkeen albisteak partekatzeko, bizitza unibertsitarioen berri emateko edo garrantzikoak diren informazioak zabaltzeko (elur protokoloen kontuak, ezusteko albisteak...); eta nola ez, jarraitzaile eta erabiltzaile guztiekin harreman gertuago bat izateko!

Hauxe da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen Facebook orriaren helbidea:

- www.facebook.com/huhezi.mu

Gogoan hartu, bestalde, fakultateak Twitterren dituen kontu ofizial nagusienak:

- [@Huhezi \(www.twitter.com/Huhezi\)](https://twitter.com/Huhezi)
- [@graduondoak \(www.twitter.com/graduondoak\)](https://twitter.com/graduondoak)

Eman, bada, "Atsegin dut" Facebook-en eta egin zaitez Twitterreko jarraitzailea!



www.facebook.com/huhezi.edu
helbidea du fakultatearen orriak.